

Comunicado de prensa

Protesta durante el acto inaugural del “Congreso Internacional sobre Políticas de Vivienda” organizado por el Gobierno Vasco

- Colectivos sociales y sindicatos de vivienda denuncian la nueva oleada de recortes impulsada por el Gobierno Vasco a las prestaciones para el acceso a una vivienda digna
- Desaparece la Prestación Complementaria de Vivienda de Lanbide y las Ayudas de Emergencia de los servicios sociales. Estas prestaciones desaparecen por la Prestación Económica de Vivienda, para lo que se exigen un mínimo tres años de inscripción en el Servicio Vasco de Vivienda-Etxebide cuando, para el acceso a las dos prestaciones que desaparecerán a partir del 2 de abril, no se exigía ningún tipo de antigüedad

Bilbao, lunes 29 de enero de 2024

Las plataformas contra la exclusión social y por los derechos sociales Argilan-ESK y Berri-Otxoak junto al Sindicato Socialista de Vivienda de Euskal Herria protestan durante el acto inaugural del “Congreso Internacional sobre Políticas de Vivienda” organizado por el Gobierno Vasco.

Mediante esta movilización los colectivos sociales y sindicatos de vivienda denuncian la nueva oleada de recortes impulsada por el Gobierno Vasco a las prestaciones para el acceso a una vivienda digna. Protesta ante la farsa que supone organizar un “congreso” sobre las políticas públicas de vivienda mientras se aplican recortes al derecho a la vivienda.

Desde Argilan-ESK, Berri-Otxoak y el Sindicato Socialista de Vivienda de Euskal Herria llevamos tiempo señalando que, de forma silenciosa, se están aprobando varias reformas que recortan las prestaciones en el acceso a la vivienda y restringen las mismas para las personas y unidades de convivencia más precarizadas, empobrecidas y vulnerables. En concreto, nos referimos a **dos cambios** sustanciales:

- Por un lado, **la nueva Ley del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión (LSVGII)** que entraba en vigor el pasado 29 de marzo. En concreto, se redefine el concepto de “domicilio”, por lo cual “no tendrá la consideración de domicilio el uso sin título” de una vivienda. Es decir, aquellos domicilios que no dispongan de un título –un contrato de arrendamiento o el título de propiedad, por ejemplo– no podrán percibir la RGI.
- Por otro lado, nos referimos también a **la creación de una nueva ayuda denominada Prestación Económica de Vivienda (PEV)**, aprobada definitivamente en octubre de 2023 y que entrará en vigor en abril de este mismo año. Esta nueva prestación, no se suma a las ya existentes, sino que las sustituye. En concreto, dejará de existir la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV) que acompañaba la RGI y las Ayudas a Emergencias Sociales (AES) destinadas al alquiler. Bajo el pretexto de simplificar y unificar las ayudas, han cambiado un requisito importante: para acceder a esta nueva prestación se incluye como criterio ineludible tres años de inscripción ininterrumpida en Etxebide.

Si estos cambios se introducen, afectarán a cientos de unidades de convivencia y miles de personas se quedarán sin acceso a las prestaciones de vivienda. Es más, **son los sectores más precarizados y empobrecidos los que se verán afectados:** las personas que no estén inscritas con tres años de antelación en el Servicio Vasco de Vivienda-Etxebide, quienes viven en subarrendamientos y no disponen de un aseo de uso propio por habitación, las que no tienen un contrato de alquiler regular o las que viven ocupando viviendas vacías. Es decir, los sectores más afectados de forma directa por esta política de recortes son las rentas más bajas; las personas migrantes, las familias con más dificultades para llegar a fin de mes, las trabajadoras con empleos precarios, los y las jóvenes trabajadores, las familias monoparentales...

Por todo ello, contra los recortes, contra la criminalización y el empobrecimiento que los acompañan y en favor de unas condiciones de vida dignas garantizadas para todas las personas, se ha convocado una manifestación el sábado 24 de febrero a las 12:00 desde la plaza Elíptica en Bilbao.

**¡NO A LOS RECORTES DEL DERECHO A LA VIVIENDA!
INSTITUZIOEN FARTSARI AURRE EGIN**

Prentsa oharra

Protesta Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Etxebizitza Politikei buruzko Nazioarteko Biltzarraren" inaugurazio ekitaldiaren aurrean

- Eusko Jaurlaritzak etxebizitza duina eskuratzeko prestazioei egindako murrizketen uholdea salatu dute kolektibo sozialek eta etxebizitzaren sindikatuek
- Desagertuko dira Lanbideren Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta gizarte-zerbitzuen Larrialdietarako Laguntzak. Prestazio horien lekua Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak betetzen du, eta prestazio horrek gutxienez hiru urteko inskripzioa eskatzen du Etxebideren Euskal Etxebizitza Zerbitzuan. Apirilaren 2tik aurrera desagertuko diren bi prestazioak eskuratzeko, ez zen inolako antzinatasunik eskatzen

Bilbo, 2024ko urtarrilaren 29a, astelehena

Gizarte bazterketaren aurkako eta gizarte eskubideen aldeko Argilan-ESK eta Berri-Otxoak plataformek eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak protesta egin dute Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Etxebizitza Politikei buruzko Nazioarteko Kongresua" inauguratzeko ekitaldian.

Mobilizazioa honen bidez, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza duina eskuratzeko prestazioei egindako murrizketen uholdea salatu dute gizarte-taldeek eta etxebizitza-sindikatuak. Etxebizitza eskubideari murrizketak aplikatzen dizkioten bitartean, etxebizitza-politika publikoei buruzko "biltzarra" antolatzeak dakarren fartsaren aurkako protesta.

Argilan-ESK, Berri-Otxoak eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza eskuratzeko prestazioen arloan bultzatutako murrizketak salatu nahi ditugu. Denbora daramagu esaten, isilean, hainbat erreforma onartzen ari direla, etxebizitza eskuratzeko prestazioak murrizten dituztenak eta prestazio horiek pertsona eta bizikidetzaren unitate prekarizatuenez, pobretuenentzat eta kalteberentzat kentzen dituztenak. Zehazki, funtsezko bi aldaketa aipatzen ditugu:

- Alde batetik, **Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berria**, joan den martxoaren 29an indarrean sartu zena. Zehazki, "bizilakuaren" kontzeptua birdefinitzen da, eta, beraz, "ez da bizilekutzat hartuko etxebizitza baten titulurik gabeko erabilera". Hau da, titulurik ez duten etxebizitzek – alokairu-kontratua edo jabetza-titulua, adibidez – ezin izango dute DBEa jaso.
- Bestalde, **Etxebizitzaren Prestazio Ekonomikoa (EPE) izeneko laguntza berri bat** sortzeaz ere ari gara; 2023ko urrian onartu zen behin betiko, eta aurtengo apirilean jarriko da indarrean. Prestazio berri hori ez zaio lehendik zeudenei gehitzen, ordezkatu egiten ditu. Zehazki, DBE-rekin batera eskatu zitekeen Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta alokairurako Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) desagertu egingo dira. Laguntzak sinplifikatzeko eta bateratzeko aitzakiarekin, baldintza garrantzitsu bat aldatu da: prestazio berri hori jasotzeko, irizpide saihestezina izango da hiru urtez etenik gabe Etxebiden izena emanda egotea.

Aldaketa horiek aplikatzen badira, ehunka bizikidetz-unitateri eragingo diete, eta milaka pertsona etxebizitza-prestazioetarako sarbiderik gabe geratuko dira. Are gehiago, **sektore prekarizatuenak eta pobretuenak izango dira kaltetuenak**: Etxebide-Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan hiru urtez izena emanda ez duten pertsonak, azpierrentamenduetan bizi eta logelako erabilera propiorik ez dutenak, alokairu erregularreko kontraturik ez dutenak edo etxebizitza hutsak okupatzen bizi direnak. Hau da, murrizketa-politika horrek zuzenean gehien kaltetutako sektoreak errenta txikienekoak dira; migratzaileak, hilaren amaierara iristeko zailtasun gehien dituzten familiak, enplegu prekarioak dituztenak, gazte langileak, guraso bakarreko familiak...

Horregatik guztiagatik, **murrizketen aurka, kriminalizazioaren eta pobretzearen aurka eta pertsona guztientzako bizi-baldintza duinen alde, otsailaren 24rako manifestazioa deitzen dugu**. Dei egiten diegu kolektibo sozial eta politikoei, baita pertsona guztiei ere, larunbatean, hilak 24, 12:00etan Eliptica plazatik aterako den manifestazioan parte hartzera.

**¡NO A LOS RECORTES DEL DERECHO A LA VIVIENDA!
INSTITUZIOEN FARTSARI AURRE EGIN**